

“Zure ideiak balio du” lehiaketaren 2024ko XX. edizioa

Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak, BIC Arabak eta Fundación Vital Fundazioak ideia ekintzaileen “Zure ideiak balio du” lehiaketaren XX. ediziorako deialdia egin dute, Araba Ekinean lehiaketaren XXI. edizioaren barruan.

1. Lehiaketaren helburua

Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen nolabaiteko garapen-maila duten ideia ekintzaileak ezagutzera ematea. Beren izaera berritzaile, sortzaile eta egokiarengatik nabarmentzen diren negozio-ideiak onestea eta ezagutzera ematea da jarduera honen xedea.

"ZURE IDEIAK BALIO DU" LEHIAKETAREN 2024ko EDIZIOAREN KATEGORIA NAGUSIAK

- **Fundación Vital Fundazioa Saria ideia onenari:** Oraindik ere garatu ez diren baina beren originaltasunarengatik edo etorkizunari begira duten potentzialarengatik onetsiak izatea merezi duten ideiak bilduko dira kategoria honetan. Horrela, oraindik garatu ezin izan badute ere espiritu ekintzailea duten ikasleen edo pertsona gazteen parte-hartzea sustatu nahi du epaimahaiak. Ideia irabazleak diploma bat eta 1.000 euro eskudirutan jasoko ditu Fundación Vital Fundazioaren babesarekin.
- **Aclima Saria ekimen jasangarrienari:** 2024ko edizio honetan ere izango da garapen jasangarriaren balioak hobekien islatzen dituen eta ekonomia zirkular berriaren elementuak indartzen dituen proiektuarentzako sari bat. Aclima Ingurumenaren Euskal Klusterrak babesten du sari hau, eta epaimahaiak diploma bat eta 1.000 euro emango dizkio kasu honetan ere hobekien aurkeztutako proiektuari.
- **Merkataritza eta Turismoko Gasteiz On Saria:** Merkataritzaren eta turismoaren esparruan garatu ahalko diren aurkeztutako proiektu guztiak bilduko dira atal honetan. Gasteiz ONek babesten du sari hau, eta epaimahaiak diploma bat eta 1.000 euro emango dizkio kasu honetan ere hobekien aurkeztutako proiektuari.
- **Eroski Saria nekazaritzako elikagaien ekimen onenari:** Eroskik nekazaritzako elikagaien sektorean gauzatzeko aurkeztutako proiektu onenari emandako saria. Diploma egiaztagarria eta 1.000 euro eskudirutan jasoko ditu sari gisa proposamen irabazleak.
- **Michelin Saria industria-ekimen onenari:** Industria-esparruan aurkeztutako proiektu onenak diploma bat eta 1.000 euro jasoko ditu. Michelin Fundazioak babesten du sari hau.

- **i+Med saria osasunaren esparruko ekimen onenari:** Aurkeztutako proiektu guztien artean, berritzaileena dela eta osasunaren esparruan balio handiena dakarren soluzioa nabarmenduko da. Bioteknologiako i+Med enpresak babesten du sari hau, eta diploma bat eta 1.000 euro eskudirutan izango da saria.

"ZURE IDEIAK BALIO DU" LEHIAKETAREN 2024ko EDIZIOAREN SARI BEREZIAK

*** Sari bereziak arestian adierazitako kategoriekin metagarriak eta gehigarriak dira. Proiektu bera aurreko kategorietako baten irabazlea eta aldi berean bi kategoria berezietako baten edo bien irabazlea ere izan daiteke.*

- **RPK Sari Berezia eraldaketa sozial eta enpresarialari:** Aurreko kategorietara aurkeztutako proiektu guztien artean, inpaktu sozial handiena eta hobea duen proiektua hautatuko du RPK-k, betiere industriaren eta gizarte-eraldaketaren lerrokatzea ziurtatuz. Diploma bat eta 1.000 euro eskudirutan jasoko ditu proiektu irabazleak.

- **Mobility Lab Sari Berezia energia-trantsizioarako berrikuntzari:** Aurreko kategorietara aurkeztutako proiektu guztien artean, energia-trantsizioa errazteko ekarpen handiena egiten duen proiektua hautatuko du Mobility Lab sariak, batez ere mugikortasun eta logistika jasangarriarekin lotutako esparruan. Diploma bat eta 1.000 euro eskudirutan jasoko ditu proiektu irabazleak.

- **Deustuko Unibertsitatearen Sari Berezia proiektu-aurkezpen onenari:** Ideia finalisten jardunaldian beren aurkezpen publikoa egiten duten proiektu guztien artean, azalpen onena hautatuko du Deustuko Unibertsitateak, bere proiektu-ideia modurik eraginkorrenean helaraztea lortzen duen azalpen hura, alegia. Diploma bat eta 1.000 euro eskudirutan jasoko ditu proiektu irabazleak.

- **Publikoaren Sari Berezia:** Aurreko kategorietara aurkeztutako proiektu guztien artean, proiektu finalisten aurkezpen-ekitaldira bertaraturako publikoak zuzenean bozkatuko du aurkezpen onena. Bozketa horretatik aterako da proiektu irabazlea, eta diploma bat eta 300 euro jasoko ditu eskudirutan.

Kategoria bakoitzeko proposamen irabazleek beren proiektua martxan jartzeko eta garatzeko tutorizazio eta aholkularitza bat jasoko dute halaber sari bezala, Araba Ekinean ekimenaren erakunde laguntzaileetako baten eskutik.

2. Parte-hartzaileak

Proposamen edo ideia ekintzaileak dituzten pertsonak parte hartu ahaliko dute, adin-mugarik gabe, Araban bizi direnei edo lurraldeko ikasleei lehentasuna emanez, ideia ekintzailea edozein sorkuntza- edo garapen-fasetan dagoela ere.

Lehiaketara aurkeztutako negozio-ideiek Arabako lurraldean garatuak izateko moduan planteatuak egoteko eskakizuna bete beharko dute, edo proiektuaren kudeaketaren erdigune neurgarriak Araban egon beharko du.

Banaka edo taldeka aurkeztu ahalko dituzte beren proposamenak parte hartzen duten pertsonak, eta edozein jardura edo enpresa-sektoereri buruzkoak izan ahalko dira.

3. Lanen aurkezpena

"Zure ideiak balio du" lehiaketaren XX. deialdiaren oinarriak argitaratzearekin batera irekiko da proposamenak aurkezteko epea, 2024ko otsailaren 5ean, eta urte bereko martxoaren 15ean amaituko da, 14:00etan.

FORMATU ELEKTRONIKOAN AURKEZTU BEHARREKO EZINBESTEKO DOKUMENTAZIOA:

- Pertsona parte-hartzaile(ar)en izen-abizenak
- Pertsona parte-hartzaile(ar)en NANaren fotokopia
- Harremanetarako telefonoa eta emaila
- Ideia ekintzailearen azalpen-memoria (**GEHIENEZ 5 FOLIO** gehitu nahi diren erantsitako irudi edo bideoak kontuan izan gabe)
- Proposamenaren izenburua
- Proiektuarekin "Zure ideiak balio du" lehiaketako zer kategoriatako sarietara aurkezten diren. Sari bereziak ez dira barnean hartzen*
- Pertsona sustatzaileak
- Ideia ekintzailearen laburpena
- Balizko merkatua
- Xede-taldea
- Ideiaren ibilbidea, esperientzia edo onepenak (sariak, diplomak...) onepen horiek eskuratu bitartean
- Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa
- Proposamenaren maketa, beharrezkotzat jotzen dutenean (formatu fisiko edo digitalean)

* Epaimahaiak proposamenaz bestelako kategoriatan kokatu ahal izango du proiektua, hori egokiagoa dela uste badu. Bere dokumentazioan kategoriatan bat baino gehiago adierazten baditu ere, kategoriatan bakarrez izan ahalko da finalista proiektu bakoitza.

2024ko otsailaren 5etik martxoaren 15era bitarte igorri beharko da dokumentazio hau formatu elektronikoa info@alavaemprende.com helbide elektronikora. "Zure ideiak balio du" lehiaketaren XX. deialdiari dagokionez edozein zalantza argitzeko info@alavaemprende.com helbide elektronikora idatzi ahalko da edo 945232548 telefono-zenbakira deitu

Aurkeztutako proposamen ekintzaile bakoitzari dagokion dokumentazioa **FORMATU DIGITALEAN** bidali beharko da, **EZ PAPEREAN**.

OHARRA: Beren ideia ekintzailearen maketa fisikoren bat entregatu nahi duten pertsonak Araba Ekinean lehiaketako idazkaritza teknikoaren egoitzan (Gasteizko Herminio Madinaveitia kaleko 22. zenbakia) entregatu ahal izango dute, eta "Zure ideiak balio du" lehiaketaren XX. edizioa amaitu ondoren itzuliko zaie. Maketa horretarako sarbidea eta parte-hartzaileen proiektuaren informazioa izango duten pertsona bakarrak epaimahaiko kideak eta idazkaritza teknikoko langileak izango dira. Informazioaren tratamendu konfidentziala bermatzen da.

4. Proiektu irabazleak hautatzeko eta zein diren erabakitzekeo prozesua

4.1 Proiektu finalisten aurrehautaketa

Behin proposamenak 2024ko otsailaren 5etik martxoaren 15era ezarritako epean aurkeztutakoan, hobekien balioetsitako proiektuak aurreauketarako dituzten epaimahaiak, eta apirilean egingo den ekimen online-presentzial batean sozializatuko da emaitza hori, proiektu finalistak ezagutaraziko diren ekimen batean. Une horretatik aurrera, Araba Ekinean lehiaketako Idazkaritza Teknikoa finalera iristen direnekin harremanetan jarriko da maiatzaren 6an Gasteizko Europa Biltzar Jauregian izango den ekitaldian finalista guztiek beren ideia ekintzaileen aurkezpen publikoa prestatzeko aplikatu beharreko jarraibideak zein diren adierazteko.

Aurkeztutako ideien balio-proposamena hobetzeko, finalista diren ideien jabe diren pertsonak prestakuntza espezifiko bat jasotzeko aukera izango dute, hiru orduko iraupena izango duena eta apirilean izango dena. Prestakuntza hori egitea balio erantsia izango da bertan parte hartzen dutenentzat eta, horrekin batera, proiektuen aurkezpen publikoa optimizatzea ahalbidetuko dio antolakuntzari, ekitaldiari homogeneotasun handiagoa emanez.

Dokumentazioa aurkezteko unean islatu beharko da prestakuntza horretan parte hartzeko konpromisoa, eta epaimahaiak modu positiboan balioetsiko du bertan parte hartzea.

4.2 Aurkezpen publikoa

Proiektuen aurkezpena diapositiba-erakusketa labur batekin egingo da, **maiatzaren 6an (astelehena)**, arratsaldean, Europa Jauregian, eta oso bisualak izango dira (adibidez, pecha kucha formatua), iruditan, esloganetan eta funtsezko ideiatan oinarrituta, proiektuak irailaren amaiera-alderako aurreikusitako ekitaldian aurkezteko. Ekitaldi horretan, parte-hartzaile bakoitzak **gehienez 5 minutu** izango ditu (denbora hori gaindituz gero, proiektuak penalizazioa izango du eta hori kontuan hartuko da epaimahaiak emango duen puntuazioan). Ezarritako lehenengo 9 kategorietan eta sari berezietan aurkeztutako proiektuei buruz eztabaidatuko du epaimahaiak, eta bertaratutako publikoak emango du bere epaia zuzenean, Publikoaren Sari Berezia merezi duen proiektua hautatuz.

Aurkezpen hori funtsezko unea da ideia ekintzaileak defendatzeko eta saltzeko, proiektuan konfiantza erakusteko, eta epaimahaiaren eta publikoaren babesa lortzeko.

4.3 Sari-banaketa

Aurtengo edizioan ezarritako honako kategoria hauei dagozkien 10 sari emango dira:

- Ideiak: Diploma eta 1.000 euro
- Jasangarritasuna: Diploma eta 1.000 euro
- Merkataritza eta turismoa: Diploma eta 1.000 euro
- Nekazaritzako elikagaiak: Diploma eta 1.000 euro
- Industrialak: Diploma eta 1.000 euro
- Osasuna: Diploma eta 1.000 euro
- RPK Sari Berezia eraldaketa sozial eta enpresarialari: Diploma eta 1.000 euro
- Mobility Lab Sari Berezia energia-trantsiziorako berrikuntzari: Diploma eta 1.000 euro
- Deustuko Unibertsitatea Sari Berezia proiektu-aurkezpen onenari: Diploma eta 1.000 euro
- Publikoa: Diploma eta 300 euro

Sari-emate ekitaldia **2024ko maiatzaren 23an** egingo da, arratsaldean, Europa Biltzar Jauregian, Araba Ekinean 2024 jardunaldi nagusiaren markoan, eta proiektuko kideren batek ekitaldian egon beharko du nahitaez saria jaso ahal izateko, eta inor ez badago, hurrengo sailkatuari egokituko zaio saria.

5. Epaimahaia

Honako erakunde hauetako ordezkariak osatuko dute Ideia Ekintzaileen “Zure ideiak balio du” lehiaketaren XX. deialdiaren epaimahaia: Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Arabako Merkataritza Ganbera, SEA, Ajobask, BIC ARABA, Fundación Vital Fundazioa, SECOT, Hetel, Ikaslan, UPV-EHU (Arabako Campusa), Deustuko Unibertsitatea, Metxa, Emprendiza, Aclima, Michelin Fundazioa, Gasteiz ON, ASLE, Eroski, i+Med, Mobility Lab eta RPK. Epaimahaiko kideen botoen gehiengoaren arabera ebazten da epaimahaiaren beraren erabakia, kreatibitatearen, bideragarritasunaren, eraginaren eta Arabako enpresa-sarean duen ezarpen-aukeraren arabera. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake ezarritako edozein kategoriatan. “Zure ideiak balio du” lehiaketan parte hartzen duen orok osorik onartu behar ditu nahitaez oinarriak.

6. Komunikazioa eta hedapena

Araba Ekinean ekimeneko XX. edizioko jarduera-programa prentsaurreko baten bidez zabalduko da, eta lehiaketari buruzko informazio guztia honako kanalen bidez egongo da eskuragarri:

- Webgunea: alavaemprende.com
- Sare sozialak: @alavaemprende (Twitter), ÁlavaEmprende (Facebook), @alava-emprende (LinkedIn) eta @alava_emprende (Instagram)